# MERKATU INTERBENITUAK

ESKAINTZA, ESKARIA ETA GOBERNUAREN POLITIKAK

- Merkatu libre eta arautu gabean merkatuaren indarrek oreka-prezioa eta oreka-kantitatea ezartzen dituzte.
- Oreka gunea egonkorra izan arren, baliteke jende guztia gustura ez egotea.

PREZIOEN KONTROLAK

- Normalean gauzatzen dira politikariek merkatu-prezioa bidezkoa ez dela uste dutenean, erosle edo saltzaileentzat.
- Emaitza: gobernuak ezarritako gehienezko edo gutxieneko prezioak.
- **Gehiegizko prezioa:** Legez ezarritako prezio maximoa: hortik gora ondasuna ezin da saldu.
- **Gutxieneko prezioa:** Legez ezarritako prezio minimoa: hortik behera ondasuna ezin da saldu.

**GEHIENEZKO PREZIOEN ERAGINA MERKATUAN**

- Gobernuak gehienezko prezioa ezartzen duenean bi emaitza posible ditzakegu:
    - Gehienezko prezioak ez du eraginik oreka-preziotik gora ezarriz gero.
    - Gehienezko prezioak eragina du oreka-preziotik behera ezarriz gero. Hor eskaria handitu egingo da eta urritasuna sortu.

➔ **Merkatua gehienezko prezioarekin**




- Gehienezko prezioen eragina

  Eragina duen gehienezko prezioa:
    - Urritasuna: QD > QS delako.
    - Adibidea: babes ofizialeko etxebizitzaren merkatua
    - Merkatuan salduko den kopurua bi horietatik txikiena izango da: Qs

## MERKATU LIBREAK ETA PREZIO KONTROLAK: PREZIO MAXIMOAK

- **Kontsumitzaileentzat:**
  - Onuragarria ondasuna erosten dutenentzat (Prezio baxuagoa).
  - Kaltegarria erosten ez dutenentzat (ilarak, errazionamendua…).
- **Ekoizleentzat:**
  - Kaltegarria da: ondasun gutxiago saltzen dituzte, prezio merkeagoan.
  - Prezio maximoen arrisku gehigarria: merkatu beltza sustatzea.

## GUTXIENEKO PREZIOEN ERAGINA MERKATUAREN EMAITZAN

- Gobernuak gutxieneko prezioa ezartzen duenean bi emaitza posible:
  1. Gutxieneko prezioak ez du eraginik oreka-preziotik behera ezarriz gero.
  2. Gutxieneko prezioak eragina du oreka-preziotik gora ezarriz gero, gehiegizko ekoizpena sortuz. Jendeak gutxiago erosiko du.

➔ **Merkatua gutxieneko prezioa ezarriz gero**




- Gutxieneko prezioek eskatutako eta eskainitako kantitateen orekarentzako mugimendua oztopatzen dute.
- Prezioa gutxieneko prezioan gelditu behar da.
- Gutxieneko prezioaren eragina:
  - Gaindikina QS > QD delako
  - Salduko den kopurua:
    - Adibideak: Gutxieneko soldata.

## PREZIO MINIMOA

- **Ekoizleentzat:**
  - Onuragarria da: ondasuna garestiago saltzeko aukera dute.
  - Soberakina saltzen ez badute kaltegarria izan daiteke, baina normalean gobernuak erosten du soberakin hori.

- **Kontsumitzaileentzat:**
    - Kaltegarria da, ondasuna garestiago ordaindu behar dutelako.

<u>**GUTXIENEKO SOLDATA**</u>

- Gutxieneko prezioen adibide argia soldata minimoa da.
  Soldata minimoa: edozein langilek gutxienez jaso behar duen soldata.

➔ <u>**Gutxieneko soldataren eragina lan merkatuan**</u>

